# ARGITALPENA BEGIRATZEKO ZERBITZUAREN BEZERO APLIKAZIOAREN ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA

**Izenpe**

Beato Tomás de Zumárraga
71 - 1ª Planta
01008
Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.com
info@izenpe.com
Tel.: 945 017 490

# Edukia


1. Sarrera 3

**1.1 Helburua 3**

**1.2 Nori zuzendua 3**

2. Deskribapen orokorra 4

3. Argitalpena begiratzeko zerbitzuaren bezero- aplikazioa 5

**3.1 Aplikaziorako sarbidea 5**

**3.2 Argitalpena begiratzea 9**

# 1. Sarrera

## 1.1 Helburua

Eskuliburu honen helburua da Argitalpena Begiratzeko Zerbitzuaren bezero-aplikazioa nola erabili azaltzea.

## 1.2 Nori zuzendua

Dokumentu bat argitaratu den datatik aurrera aldatu ez dela egiaztatu nahi duen edozein herritarri zuzentzen zaio eskuliburu hau.

## 2. Deskribapen orokorra

Argitalpena begiratzeko zerbitzuaren bezero-aplikazioa arduratuko da gaur egun dauden argitalpenen bilaketa egiteaz, eta argitalpen bat begiratzeko zerbitzura jotzeaz eta lortutako emaitza erakusteaz.

# 3. Argitalpena begiratzeko zerbitzuaren bezero-aplikazioa

## 3.1 Aplikaziorako sarbidea

IZENPEren web-publikoaren bitartez sartuko da aplikazioan: [http://www.izenpe.com](http://www.izenpe.com).




Pantailaren ezkerraldean dagoen menuko ‘Produktu eta zerbitzuak’ aukera hautatu beharko da.




‘IZENPEren beste zerbitzu batzuk’ atalaren barruan ‘Argitalpena jasota uzteko zerbitzua’ aukera hautatu beharko da.




‘Argitalpena Begiratzeko Zerbitzua’ aukera hautatu beharko da eta aplikazioan sartuko da.




Aplikazioan sartu ondoren, hurrengo pantaila agertuko da.


euskadi.net
ARGITARATUTAKO DOKUMENTUAK FROGATZEA
es | eu
Sakatu 'Bilatu' edo hautatu bilaketa irizpidea
- Erakundea:
- Izenburua:
- Argitalpen data - Noiztik:
- Argitalpen data - Noiz arte:
- URL:
Bilatu
Garbitu
© 2010 • Izenpe S.A.

## 3.2 Argitalpena begiratzea

Aplikaziora **3.1 atalean** adierazi den moduan sartu ondoren, Argitalpena Begiratzeko zerbitzurako deia egin ahal izango da. Horretarako, gaur egun dauden argitalpenen bilaketa egin beharko da aurretik. Bilaketa hori “Bilatu” botota sakatzean egingo da. Formularioko bilaketa egiteko eremuetan adierazitako balioekin bat datozen eta bertan jasota dauden argitalpen guztien zerrenda erakutsiko du. Eremu horietan baliorik sartzen ez bada, bertan jasota dauden argitalpen guztiak erakutsiko dira. Honakoak dira bilaketa-eremuak:

- **Erakundea:** Alta eman diren entitate guztiak agertuko dira.

- **Izenburua:** Dokumento bakoitzerako hautatu den izenburua.

- **Argitalpen data - Noiztik:** Bilaketa zer datatik aurrera egin nahi den adierazteko, argitalpenak alta hartu duen data izango da kontuan. Balio hori testu-eremuaren eskuinaldean dagoen ikonoaren bidez hautatu ahal izango da. Ikono hori sakatuz gero, hurrengo leihoa azalduko da. Berrikustea zein egunetan amaituko den hautatuko da.




- **Argitalpen data – Noiz arte**: Bilaketa zer datara arte egin nahi den adierazteko, argitalpenak alta hartu duen data izango da kontuan. Balio hori testu-eremuaren eskuinaldean dagoen ikonoaren bidez hautatu ahal izango da. Ikono hori sakatuz gero, hurrengo leihoa azalduko da. Berrikustea zein egunetan amaituko den hautatuko da.




- **URL**: Gaur egun dauden argitalpenen URLan agertzen den testua.

Formularioaren eremuetako balioa behar bezala sartu ondoren, “Bilatu” botoia sakatu eta bilaketa egiteaz eta emaitza erakusteaz arduratuko da.




Bilaketaren emaitza gisa lortutako argitalpenetako bakoitza ‘Bilaketaren emaitza – Sakatu Web helbide baten gainean dokumentua begiratzeko’ ataleko lerro batean jasoko da. Argitalpen bat begiratzeko, beraz, dagokion lerroaren gainean jarriko da sagua eta gris kolorearekin markatuta agertuko da. Orduan sakatu egingo da.

Atal horrek Argitalpena Begiratzeko Zerbitzura joko du, eta lortutako emaitza erakutsiko da.




Gainera, pantaila berri bat agertuko da argitalpen begiratzearen hautatu den dokumentoaren (PDF) informazioarekin.



Argitalpena Begiratzeko Zerbitzurako deiaren emaitza edo erantzuna honelakoa izan daiteke:

- Dokumentoa aurreko dokumentoarekin aldaketak ez dauzka
- Dokumentoa aurreko dokumentoarekin aldaketak dauzka
- Dokumentoa jatorrizko helbidean ez da aurkitzen

Argitalpena Begiratzeko Zerbitzuak itzulitako emaitza erakusteaz gain, begiratzeko hautatu den argitalpenari buruzko informazioa ere azalduko da.

Argitalpena Begiratzeko Zerbitzura beste dei bat egin nahi izanez gero, “Itzuli” botoian sakatuko da, eta egin den azken bilaketa erakutsiko duen pantaila erakutsiko du.

Aukeratutako parametroekin emaitzarik aurkitzen ez badira, hurrengo pantaila agertuko da erregistroak bilatu ez direla esaten.

